

Proposamen integrala **covid-19**ren
krisiaren aurrean

Erreskate soziala eta suspertze ekonomikoa Barakaldon.

ehildu

1. Sarrera

Une gogorrenetan, pertsonak elkarri eskua emateko gai gara, elkarrekin aurrera egiteko. Era berean, bostekoa ondo emateak elkarrekiko konfiantza transmititzen du eta etorkizuneko akordio bat sinbolizatzen du. Batasuna eta adostasuna. Guztiok aurrera egitea helburu duen plan on bat diseinatzeko gakoak dira, inor atzean utzi gabe.

Lidergo publikoen garaia da, Barakaldo bezalako herri duin batean politika publikoak eta komunitarioak antolatzeke garaia, elkar zaindu eta babesten duena eta guztientzako aukerak sortzen dituen. Herritarrok COVID-19tik babestu behar dugu, baina baita langabeziatik, pobreziatik, zaurgarritasunetik, zorretatik eta etxegabetzeetatik ere. Politika desmerkantilizatzeko eta bizitza erdigunean jartzeko garaia da.

Premia hori ezinbesteko bihurtzen da gurea bezalako herri batean, Barakaldon, Ezkerraldean. Gure herriak, gaur inoiz baino gehiago, behar du erakundeen bultzada. Pandemia honi aurre egin behar izan aurretik, adierazle sozialak oso kezagarriak ziren. Horregatik, inoiz baino premiazkoagoa da erakundeek krisi honek Barakaldoko gizartean utziko dituen ondorio kezagarrien aurrean erantzutea. Salbuespenezko egoera honen aurrean salbuespenezko proposamenak, planak eta neurriak behar dira. Barakaldorako erreskate plan bat behar da, Udalak berak gidatua, barakaldarrengandik gertuen dagoen erakundea izanik, eta merkataritza eta elkarte sareekin partekatua.

2. Pertsonen osasuna eta ekonomia babesteko txoke plana

Krisi hau hasi aurretik, Barakaldok gizarte-mailan kezkarriak ziren premia batzuk zituen, Barakaldoko Udalak berak egin zuen “2018-2020 gizarte-premien mapan” jasotzen zen bezala, non udalerrri gisa aurre egin beharreko premia nagusiak hautematen ziren. Azterlan horrek aipatzen zituen eronka sozialak biderkatu egin dira orain, Covid-19ak sortutako krisiaren ondorioz:

- Merkataritza eta ostalaritza txikien susperraldi ekonomikoa.
- Langabezia, zerbitzuetan zentratutako hirian, krisi honek bereziki zigortutako sektorea dena.
- Gizarte-bazterketa egoeran dauden familien kopuru handia.

Krisiaren eragina desberdina izango da eremu bakoitzean, erantzuna egokia izan dadin gai izan behar gara krisia gehien pairatzen duten gizarte taldeak identifikatzeko, eta babes sozialeko planak gehien behar dituztenengana heltzea ziurtatu behar dugu.

Txoke-plan hau pertsonen osasuna eta ekonomia babesteko plan gisa ulertu behar da, pertsonen osasuna beste faktore askoren mende dagoela kontuan hartuz, hala nola enpleguaren, etxebizitzaren edo hezkuntzaren mende.

Susperraldi ekonomikoak, pertsonen bizitzari eta bizirauteko baliabideei protagonismoa emango dienak, sistema sendoagoak, eraginkorragoak eta bidezkoagoak sortzea ekarriko du.

3. Tramitazioa

Ezohiko neurri horien tramitazioak gardena eta erraza izan behar du, laguntzak azkar eskuratu ahal izateko, muga digitala gainditzeko eta erreklamazioari berehala erantzuteko. Horretarako, besteak beste, automatismoak behar dira baliatu gabeko zerbitzu edo eskubideengatiko itzulketetan, eta salbuespenak zerga-kargetan.

- Herritarrei arreta emateko bulego espezifiko bat sortzea proposatzen dugu, laguntzei buruzko informazioa emateko eta eskaerak bideratzeko, saltokiei aholkularitza emateko bulegoarekin egin den bezala.
- Hedapen-kanpaina. Barakaldarrei neurri berriak jakinaraztea, hartzaile motaren arabera gida espezifiko bidez (merkataritza, GLLak, gazteak, familiak, etab.), eta hainbat bitartekoren bidez, postaz, InfoBarakaldon, irratian eta telebistan zabaltzea.
- Barakaldo.eus web-orrian sarbide azkarreko atal bat sortzea, Udalak hartutako neurri berri guztiak jasoko dituen, postontzi birtual espezifiko bat barne, udal-plan osoari buruzko zalantzak argitzeko eta auzotarren ideia berriei bide emateko.

4. Aurrekontu-erreformulazioa

Udalaren aurrekontua birformulatu behar dugu, hiriaren susperraldi ekonomiko eta sozialaren premia berrietara egokitzeko. Zehaztu behar da zein inbertsio den lehentasunezkoa eta zein ez, ahalik eta baliabide ekonomiko gehien bidera daitezen krisiaren ondorioak gainditzera, ezohiko neurri ekonomiko eta sozialen paketeen bidez.

Agerikoa da neurri jakin batzuek diru-bilketa murriztuko dutela, eta horrek Udalaren erantzuteko eta erreskatatzeko gaitasuna ere aldatuko du. Hori dela eta, ezinbestekoa da udalaren euste-erreserba murriztea, hizpide dugun kasu hau bezalako kasuetarako erabili behar baita erreserba.

Era berean, Gobernu zentralari eskatu behar zaio udalen gastu-araua malgutu dezala, Kongresuan hartutako konpromisoaren arabera, kontuan hartuta 2020ko ekitaldia 2019koarekin alderatuta superabit handi batekin hasi genuela, eta superabit hori partida sozialetara bidera daitekeela. Halaber, aparteko neurriak finantzatzeko konprometitu gabeko geldikinak kontuan hartzea.

Udal aurrekontuaren birplanteamendu honen barruan, gizarte, merkataritza eta kultura arloko erreskate planetarako egin ez diren edo egingo ez diren ekitaldi eta jardueretarako partidak aprobetxatzearen aldeko apustua egiten dugu.

Era berean, ezinbestekoak ez diren obra txiki eta handietarako planetan konprometitutako partidak birbideratu behar ditugu (hiri-proiektuak), irisgarritasun-proiektuak izan ezik.

Aurrekontu hori birformulatzeko, gizartean politikak garatzen dituzten arloekiko diskriminazio positiboa bultzatuko duen birbanaketa egin behar da.

5. Erreskate sozialeko neurriak

Osasun-krisia gainditzeko asmoz, botere publikoek normaltasuna aldatu duten neurri zorrotz eta ezohikoak hartu dituzte. Jarduera ekonomikoaren zati handi bat geldiarazteak eta itxialdiak ondorio zuzenak izan dituzte eta izango dituzte, hala nola enplegu egonkorra galtzea, nahitaezko langabezia, negozioak ixtea, zorpetzea, etab. Ahaztu gabe ahultasun ekonomikoak ez digula denoi berdin eragiten, genero, jatorri eta/edo adinaren arabera dela. Pertsona kalteberen kopuruak gora egingo du, eta, beraz, gizarte-ekintzako politikak aldatu egin behar dira osasun-krisiaren ondoren. Neurriok denboran aurrera mantendu beharko dira..

5.1 gizarte-larrialdietarako laguntza ekonomikoa

- Gizarte-larrialdietarako laguntzen eta prestazio ekonomiko berezien zenbatekoak handitzea, eta baldintzak malgutzea, laguntzak askoz eskuragarriagoak izan daitezen.
- Espediente bakoitzeko Barakaldoko Udalaren Gizarte Larrialdietarako Laguntzak tramitatzeari buruzko instrukzioan ezarritako gehieneko zenbatekoak kentzea.
- Gizarte-larrialdietarako laguntzetan aurreikusitako gastu espezifiko bakoitzerako gehieneko zenbatekoak handitzea, zenbateko horiek Eusko Jaurlaritzak ezarritako gehienekoetara egokituta.
- Energia-pobrezia (argia eta gasa) arintzeko prestazioa ahalik eta gehien handitzea.
- Elikadura-prestazioa:
Hilean 150 eta 300 €arteko elikadura-bonoak jaulkitzea, familia-unitate bakoitzaren premiaren eta kide kopuruaren arabera:
 - Adingabekodun familia kalteberak eta eskola-jantokien itxierak kaltetutakoak.
 - Krisiaren ondorioz diru-sarrerak galdu dituzten familiak.* Bono horiek jardunbide egokien eredu baten bidez tramitatu behar dira; adibidez, gastua Barakaldoko udal-merkatuan edo udalerrian kokatutako elikadura-saltoki txikietan egitea.

5.2 gizarte-zerbitzuak

Udaleko gizarte-zerbitzuak oinarrizko beharrak asetzera bideratu behar dira, krisi-egoeraren aurrean biztanleak babestu eta laguntzera. Egoera normaletan, oinarrizko gizarte-zerbitzuak gainezka daude, eta gizarte-lan eraginkorra egiteko baliabideak falta zaizkie.

- Ezinbestekoa da langile plantilak indartzea oinarrizko gizarte-zerbitzuetan (administrazioko langileak, oinarrizko lana...).
- Babesgabetasun-arriskuan dauden familiekin edo pertsonekin lan egiten duten programak eta hezkuntza-langile kopurua handitzea.
- Udal-baliabideen poltsa bat sortzea, udal-mailako gizarte-zerbitzuetara iristen diren eskaerei erantzuteko (bizitegi-baliabideak, pakete ekonomikoak...).

5.3 Politika feministak

Hainbat ikerketaren arabera, indarkeria matxista pairatzeko arriskua hainbat mailatan handitu da, baina orain zailagoa da antzematea. Konfinamendutik irten ondoren, litekeena da arazoa azaleratu eta erasoak areagotzea. Gure betebeharra da egoera posible hori aurreikustea, biktimei eraginkortasunez lagundu ahal izateko, eta, besteak beste, autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Itunaren funtsak erabiliz.

- Harrera-espazio nahikoak eta baliabide fisiko eta giza baliabidez hornituak bermatzea. Euren etxebizitza urgentziaz utzi duten emakumeentzako eta familientzako harrera-pisuak areagotzea.
- Bizilekua premiaz utziz gero, elikagai-prestaziorako eta udal-prestazioetarako laguntzak eskuratzea.
- Indarkeria matxista jasaten duten emakumeentzako laguntza psikologikorako eta laguntza juridikorako zerbitzua indartzea.
- Emakumeentzako aterpetxea berehala irekitzea, martxoaren 24tik itxita dagoena.
- Udalaren laguntza ekonomikoak bideratzea langabezia laguntza jaso ezin duten etxeko langileentzat, laguntzotarako baldintza bete ez eta osasun-krisiaren ondorioz lana erabat edo partzialki galdu badute.
- Sexu-langileak. Egoera administratiboa edozein dela ere, egoera ahulean dauden pertsonen baliabide sozial guztietarako sarbidea bermatzea (GLL, aparteko ostatu-baliabideak, elikadura, etab.).

5.4. Adinekoak.

Barakaldok zahartze eta gain-zahartze prozesu bati aurre egin behar dio, eta, beraz, hori da kalteberatasun eta arrisku egoeran dagoen kolektibo handienetako bat, bai bolumenaren hazkundeagatik, bai euren premien intentsitateagatik.

Bakardadea, oinarrizko beharrak betetzeko arazoak... Osasun-krisiak agerian uzten du pertsona horien egoera duindu behar dela, eta euren zaintza-lanetan diharduten pertsonen lan-baldintzak hobetu behar direla.

- Adinekoen arreta eta jarraipena bermatzea. Biztanleria-sektore horrentzako kalteberatasun eta bakardade egoerak hautemateko programak babestea eta indartzea
- Biztanleria horri arreta ematen dioten Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langile kopurua handitzea.
- Etxez Etxeko Arreta Zerbitzua indartzea eta profesionalen lan-baldintzak hobetzea.
- Adinekoentzako programa psikologiko espezifikoak osasun-krisiak eta haren ondorioak (dolua, bakardadea, antsietatea...) jasaten dituztenentzat.

5.5 Kalean dauden pertsonak

Barakaldoko Udalak krisialdian zehar kalean dauden auzokideei bizitegi-zerbitzua eskaintzeko egindako operazioak agerian uzten du bizitegi-laguntza eskaini ahal eta behar zaiela osasun-krisiaren ondoren ere etxebizitza eskubidea baliatu nahi duten biztanle guztiei.

- Herriko aterpetxeetako plazak, giza baliabideak eta baliabide materialak benetako eskarira egokitzea.
- Etxegabetasun-egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentrorako (“Bidaide”) langile kopurua eta baliabideak handitzea. Plazak, giza baliabideak eta baliabide materialak benetako eskarira egokitzea.
- Dagoen jantoki sozialaren zerbitzua indartzea, afariak ere ematea.
- Kalean dauden pertsonen gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzea indibiduala indartzea, pertsonen etxegabetasun-egoeratik irteteko aukera emango dieten ibilbideak zehazten lagunduz.
- Etxegabetasun-egoeran dauden emakumeentzako gaua igarotzeko zerbitzua.
- Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzea alokairu sozialeko erregimenean gizarteratzeko etxebizitza partekatuen proiektuak indartu ditzala.

6. Zerga politika berria

Egoera berriarekin bat datorren zerga-politika berri bat ezartzea proposatzen dugu, egungo egoerak 2020rako zeuden aurrekontu-aurreikuspenekin zerikusirik ez duelako. Era berean, beharrezkoa da ordenantza fiskalak berregokitzea, aurrean ditugun erronka berrietara egokitzeko.

- Aldundiari eskatzea zergei buruzko foru-arauak alda ditzala, Barakaldoko udalerrian ekarpenean politika progresiboagoa ezarri ahal izateko.
- Bonifikazio taulak aplikatzea errenta eta familia unitate motaren arabera.
- Kartako ordainketa: ordaindu ezean, errekarigurik ez tramitatzea, familiaren diru-sarrerak ehuneko berrogeita hamar baino gehiago baliogabetu badira.
- Prezio publikoak: egin gabeko jarduerengatik ordaindutako zenbatekoa itzultzea (Barakaldo Kirolak, kultura-jarduerak...), baliatu gabeko aldiaren proportzioan.
- Barakaldo Kirolak-en kuota jaistea, kirol-zentroyen itxiera-aldiaren proportzioan.
- Jardueraren arabeko tasak. Tasak egindako jarduera ekonomikoaren arabera mailakatzea (martxoan negozio bat 16ra arte irekita egon bazen, proportzioan ordainduko litzake), eta tasak kentzea nahitaezko itxiera-aldian. Adibidez, espazio publikoa okupatzeagatik tasa (terrazak).
- Estolderia eta zabor tasak:
 - A) Behartuta itxi duten ostalaritza, merkataritza eta jarduera ekonomikoak, itxita egongo diren denboraren proportzioan murriztea.
 - B) Jarduerarekin jarraitu dutenak, baldin eta eragiketa-bolumenean >% 40ko murrizketa badute, nahitaez itxi dutenei aplikatutako murrizketaren %50eko murrizketa.
- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.
 - A) Nahitaez etendako jarduera ekonomiko bati lotutako ibilgailuak (gremioak, merkataritza-zakoak), etenaldian egondako denboraren arabeko murrizketa proportzionala.
 - B) Jarduerarekin jarraitu badute eta eragiketa-bolumenean >% 40ko murrizketa izan badute, nahitaez etenda daudenei aplikatutako murrizketaren %50 murriztuko da.
- Udal-lokaletako errentak: alokairua jaistea, diru-sarreraren jaitsieraren proportzioan, eta behartuta itxi duten Udal-Etxebizitzaren jabetzako lokaletan suprimitzea. Ezinbesteko kasuren batengatik ez bada ordaindu, ez da kaleratzerik egongo, eta alokairua eta zorra berriro negoziatu beharko dira. Ordaintzeko ezintasuna egiaztatzen bada, zorra barkatzea.
- Izaera publikokoak ez diren liburu-dendei, kultura-establezimenduei, zinema-aretoei, sorkuntza-espazioei eta antzokiei 2020ko ekitaldian dagozkien udal-tasak bereziki murriztea, nahitaezko itxieraren ordainetan eta interes publikoko lehentasunezko jarduerak diren aldetik.

7. Ekonomia suspertzea

Beharrezkoa da krisiaren eragin ekonomikoari buruzko azterketa zehatza egitea, jarduera ekonomikoaren bi alderdiak barne hartuta: merkataritzakoa eta lanekoa. Analisi horrek datuak eman beharko ditu, neurri berriak hobeto inplementatu ahal izateko.

7.1. Enplegu-planak

Barakaldoko Enplegu Planak berrindartzea, aparteko ahalegin gisa, bi urteko aurrekontu-konpromisoarekin. Kontratazioak kontratuak irauten duen bitartean kalitatezko enplegua bermatzen duten klausulak jaso behar ditu, eta kontuan izan behar du kontratuok egiturazko zereginak betetzeko ez direla kontrolatu behar dela.

7.2. Enpresak eta autonomoak

- Udalaren alokairuak barkatzea Covid-19aren alarma-egoera kalte ekonomikoak jasan dituzten pertsona autonomo eta enpresa txikiei.
- Udal-zergak ordaintzeko epeak malgutzeko banakako planak eskaintzea.
- Egoitza fiskala Barakaldon duten autonomoentzako itzuli beharrik gabeko laguntzak, gehienez 600 euroko laguntzaren bidez eskatzaile bakoitzari.

7.3. Udal-langileak eta kontratu publikoak

- Kontratu publikoak ez suntsiarazteko eskatzea. Eta, halakorik gertatuz gero, ERTE bat aplikatu zaien langilei soldata-osagarritasuna, kalte ekonomikoak saihesteko.
- Udalaren eta azpikontratutako enpresen arteko negoziazioak, kontratuak ez eteteko, soldatak bermatzeko eta langileen osasuna bermatzeko.
- Udalak azpikontratututa dituen kontratu publikoen jarraipena eta aurreikuspena, azpikontratutako enpresek enplegu-erregulazioak ezar ez ditzaten krisialditik onurak lortzen saiatzeko.
- Udalari zerbitzuak ematen dizkieten eta etenaldian jarduerarik gabe egon diren enpresen kasuan, plantila osoa lanera itzuli beharra.
- Zerbitzu publiko jakin batzuk berudalerriratzeko aukerari ekitea, udal-langileek lan-baldintza duinak izango dituztela bermatzeko tresna gisa.

7.4. Merkataritza eta ostalaritza txikia

- Jarduera etenda duten autonomoentzako eta enpresa txikientzako zergen eta tasen luzapena edo likidazioa.
- IBB likidatzea jarduera amaitu bitartean (foru-araudiaren mugen azterketa).
- Udalaren kontura erosketak egitea, ahal dela, tokiko saltokiei eta ekoizleei.
- Jarduera amaitu bitartean espazio publikoa okupatzeagatiko tasa etetea.
- Tokiko merkataritzarako eta ostalaritzarako zuzeneko diru-laguntza lerroak
- Merkataritza eta ostalaritza sustatzeko udal-kanpainak.
- Udal-alkairuak barkatzea Covid-19aren alarma-egoeran kalte ekonomikoak eragin dizkien pertsona autonomoei eta enpresa txikiei.
- Hurbileko merkataritzarako laguntzak sustatzea online salmenta-zerbitzuei dagokienez. Online erosketek gora egin dute eta tokiko merkataritzako zuzeneko salmentari kalte egiten dioten erosketa-ohiturak hartzen ari gaitzke.
- Tokiko bezeroak erakartzeko kanpainak diseinatzea.
- Saltoki txikiei kontsumoa suspertzen laguntzea: hurbileko merkataritzan erabiltzeko erosketabonuak jaulkitzea: 50 euroren truke lortzen da, 75 euroren truke erosteko. Jardunbide egokiaren gutxieneko eskuliburu bat behar du: nahitaez itxita egon diren establezimenduetan erabiltzea (elikadura, prentsa, tabakoak eta esekita ez dauden beste jarduera batzuk izan ezik).

8. Etxebizitza politika

Lan-jarduera etetearen ondorio ekonomikoek etxebizitzaren esparruan ere izango dute eragina: hipotekan, alokairuan, emantzipazioaren atzerapenean, familiaren etxebizitzara itzultzean, etab.

- Alokairuko etxebizitza izateko eskubidearen irizpideak malgutzea, krisiaren ondorioz diru-sarrerak murriztu zaizkien maizterrentzat, osasun-krisian bertan egin den bezala (atzerapena, birnegoziazioa, ordainketa barkamena, etab.).
- Etxebizitza-parke publikoa berreskuratzea, alokairu-erregimenean eskaintzeko:
- Gazteen emantzipaziorako laguntza zuzena. 30 urtetik beherakoei zuzendutako prestazioa, alokairuaren ordainketa osatzeko, krisiaren ondorioz diru-sarreraren iturria galdu izana justifikatuz. Hileko osagarria, 100 eurokoa, urte amaierara arte.

9. Kultura

Kultura-jarduerak aberastasuna sortzen du hainbat norabidetan: aberastasun immateriala, onura soziala, hezitzailea eta gure idiosinkrasia bultzatzen duena; aberastasun ekonomikoa, jarduera profesionala barne hartzen duen heinean; eta, hirugarrenik, beste sektore batzuei, zehazki Barakaldoko ostalaritzari, publikoa erakartzeko aukera ematen dielarik.

- Osasun-baldintza egokiak daudenean, kultura-agenda berraktibatzea, espazio publikoak eta oinarrizko azpiegiturak (egiturak, ekipoak, hesiak, etab.) laga edo alokatzeko udal-erraztasunak emanaz .
- Programazioa bertan behera utzi den espazio publikoetan, agenda bigarren seihilekora egokitzeko konpromisoa, proiektu berriak eta seihileko horretarako dagoen programazioa bateragarri eginez. Egokitzea ezinezkoa balitz, 2021eko lehen seihilekora atzeratuko litzateke.
- Etendako jarduera ekoizteko egindako inbertsioa ordaintzeko konpromisoa, gastua egiaztatu ondoren, berriro egiterik ez badago.
- Ezinbestean eteteak klausularik ordaintzera behartzen ez badu ere, Udalak konpromisoa hartzen du ezarritakoaren %30 aurreratzeko eta gainerako %70 jarduketaren ondoren ordaintzeko.
- Euskarazko kultur ekoizpenaren hedapenarekin lotura zuzena duten eragileentzako plan espezifikoak, beste ekitaldi batzuekiko desabantailan dagoen sektorea delako (zirkuitu txikiagoa, aurrekontu txikiagoa...).
- Haurrentzako euskarazko jarduerak indartzea.
- Auzoetako jai-egutegia berrantolatzea, jai-batzordeekin bat etorriz. Tokiko merkataritzatik datorren finantzaketaren murrizketa arintzeko, udalak programazioari laguntzea bi tresnaren bidez: zuzeneko diru-laguntza handitzea eta beste batzorde batzuekin lankidetzeta-hitzarmena egitea jai-programak indartzeko.

10. Hezkuntza

Historikoki krisi-garaietan pertsonarik ahulenak irtetzen dira galtzaile, egoerak existitzen diren desberdintasunak larritzen dituenean. Hezkuntza-esparrua ez da salbuespena. Haur eta nerabe askoren aukerak murrizten dira, gainerakoek baino baliabide gutxiago dituztelako. Beraz, berehala jardun behar da ikasle horiek pairatzen duten babesgabetasun-egoera horri aurre egiteko eta konpentsatzeko, era berean, garrantzitsua eta premiazkoa da etorkizun hurbilari begira jarraipenerako eta esku-hartzerako udal-plangintza bat egituratzea.

10.1. Ikasmaterial digitala eta ez-digitala bermatzea

- Ohiko eskola-materiala ere behar duten familien artean banatu beharko litzateke, eta ikasle adingabeek baliteke baliabide horren bidez lan egiteko gaitasun digital egokirik ez izatea eta paperean lan egin behar izatea.
- Banakako laguntza telematikoa ordenagailu bidez, telefono bidez edo aurrez aurre, dibertsitate funtzionala, mendekotasun-mailak eta premia psikologiko eta emozional espezifikoak dituzten ikasleentzat.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuen baliabidea zabaltzea, egoera horrek sortzen dituen premia berriei erantzuteko, hala nola absentismo-egoeran dauden ikasleak identifikatzea (egoera horretan hilabeteak luza daitezkeenak) eta familia horien jarraipen zehatza egitea.

10.2. Ikasle guztiei elikadura bermatzea

- Jantoki-zerbitzua eteten den bitartean, jantoki-beka duten ikasleentzako laguntzak mantentzea onartu du Eusko Jaurlaritzak, baina baliteke laguntza horiek ez iristea zuzenean familiengana.
- Eusko Jaurlaritzari eskatzea ikastetxeko jantokian izena emandako ikasleen zerrenda, eta eskatzen dutenei bermatzea orain arte horniketa egiten zuen catering-enpresaren etxez etxeko zerbitzua, osasun-segurtasuneko neurri guztiak betez, udala arduratuz banaketa horretaz.

10.3. Konfinamenduaren ondorioak arintzeko neurriak

- Haurren premiak aztertzea eta horiei buruz hausnartzea, eta konfinamenduak ekar ditzakeen ondorioez jabetzea: beldurra, antsietatea, kontzentrazioerik eza, lo egiteko zailtasunak...; hau da, haurren osasun psikosozialean izan ditzakeen ondorioak kontuan hartzea.
- Lehentasuna izan behar du haurren beharrei erantzutea konfinamendua kentzeko neurri progresiboak hartzen hasten direnean; lehentasuna izan behar du, eta ikasleei konponketa-prozesuan lagundu behar die.

- Kasu askotan euskararen eta irakaskuntza/ikaskuntza prozesuaren artean sortzen ari den deslotura konpentsatzea.
- Hezkuntza indartzeko euskarazko eskolak, hiriko eta kanpoko udalekuak antolatzea, lehentasuna euskarazko komunikazioa izango dutenak eta ikasle guztiengana iritsiko direnak.